

2020ko ekainaren 29ko Herriko Kontseiluaren txostena

Hor zirenak: DARGUY, DUHALDE, ECHEVERTZ, ETCHEVERRY, OXARANGO, PEREZ, SABALOUÉ andereak eta BARBIER, BARNECHE, BISCAY, GASTAMBIDE, HERNANDEZ, MONGABURE, OTEIZA, PARACHOU jaunak.

Bilkurako idazkaria: Kattalin Duhalde

Aiherrako Herriko Kontseilua 2020ko ekainaren 29an bildu zen eta hau deliberatu zuen:

1. 2019ko ESPLOTAZIO EMAITZAREN ERABILERA (2020ko otsailaren 28ko bilkuran bozkatua)

2019ko kontu administratiboak erakutsi du:

Herriko Etxean:

- 255 461,12 €-ko funtzionamendu-soberakina
- 290 934,95 €-ko inbestimendu-finantzaketarako beharra (inbestimendu-defizita + betetzekoak diren gaineratikoak)
- Beraz, funtzionamendu-emaizta 70 254,59€ €-koa da, eta 2020ko aurrekontura erakarri behar da.

Aho batez onartua.

Hilerrietan:

- 808,47€ €-ko funtzionamendu-soberakina, 2020ko aurrekontura erakartzekoa.

Aho batez onartua.

2. 2020ko ZERGEN BOZKATZEA

Bizitegi zerga: bozkarik ez, Herriko Etxeak Estatuaren emaitza bat ukanen du bizitegi zergaren erreformaren ondorioz.

2018az geroztik zerga hori apaltzen ari da Frantziako herritarren % 80rentzat; eta **2020tik goiti ez dute gehiago ordainduko.**

Gelditzen diren % 20 familientzat **bizitegi zerga** apalduz joanen da 2023a arte, eta ordutik goiti ez du gehiago etxe **bakar batek bizitegi zerga** ordainduko bere bizitegi nagusirako.

Bizitegi nagusien bizitegi zergaren galtzearen ordainetan, herriek bi zerga baliabide mota ukanen dituzte: herriko lurraldeari doakion Departamenduko Etxe Eraikien gaineko Lur Zergen partea (EELZ) eta Estatuak bereziki EELZz gain dituen zerga gehigarrien gainean bildu kudeaketa gastuen partea.

Beste bi zergen tasa herriek dute hautatzen, eta berdin atxiki dira (fiskalisten kontseilua erreforma osoki aplikatu arte)

Lur eraikien atxikitzea: 9.22%

Lur ez-eraikien atxikitzea: 28.61%

Aho batez onartua.

3. AURREKONTUEN BOZKATZEA – AURREKONTU NAGUSIA

Funtzionamendu aurrekontua: **749 784€**

Kargu nagusiak:	133 150,00 €	2019ko soberakina, erakarria	70 255,00 €
Langile karguak	137 200,00 €	Zerbitzuen produktuak	8 500,00 €
Usaiaz kanpoko karguak	700,00 €	Karguen arintzea	61 000,00 €
Finantza-karguak	10 000,00 €	Orotariko zergak	419 640,00 €
Beste kudeaketa karguak	153 700,00 €	Beste kudeaketa produktuak	38 000,00 €
Ordena operazioak	11 603,00 €	Emaitzak, dirulaguntzak	152 389,00 €
Transferentzia inbertsio sailera:	303 431,00 €	Orotara	749 784,00 €
Orotara	749 784,00 €		

Inbestimendu aurrekontua **772 324€**

Elbarrituentzat helgarritasuna Herriko Etxean, eta zaharberritzea	7 500,00 €
Kantinaren handitzea	245 000,00 €
Bideak/Sareak	90 212,00 €
Alokatzeko den saltegiko obrak	110 000,00 €
Errebotearen arraberritzea	24 505,00 €
Bide seinaleak - Toponimia	21 500,00 €
Harrobiaren antolaketa	15 000,00 €
Materialaren erostea	10 000,00 €
Herriko argiak	18 000,00 €

Aho batez onartua.

HILERRIAK

11 Kargu orokorrak:	2 610,00 €	013 Zerbitzu produktuak	800,00 €
		74 Aurrekontu nagusiko produktua	1 000,00 €
		002 Funtzionamendu emaitza erakarria	810,00 €
Orotara	2 610,00 €		2 610,00 €

Aho batez onartua.

4. TEKNIKA LAGUNTZAILE LANPOSTU EZ-IRAUNKOR BATEN SORTZEA

Teknika laguntzaile lanpostu ez-iraunkor baten sortzeko proposamena lana aldi bateko emendatu baita (bide seinaleen ezartzeko).

Uztailean beharko da segituko bide seinaleen ezartzen. Herriko Etxeak finantzatzeko obrak izateko gisan, proposatu da Matthias Goyhenetche hartzea bi asterako.

Aho batez onartua.

5. ZUZENKO ZERGEN HERRI BATZORDEA – BATZORDEKIDEN IZENDATZEA

Herriko Kontseilu berria bozkatu baita, behar zen zuzeneko zergen herriko batzorde berria osatu.

Batzorde horretan 6 batzordekide tituludun izanen dira eta 6 batzordekide ordezko, Finantza Publikoen Departamenduko jaun zuzendariak izendatuak.

Herriko biltzarrak behar zituen izendatu hamabi batzordekide tituludun eta hamabi batzordekide ordezko. (ikus zerrenda txostenaren bukaeran)

6. SDEPAko ORDEZKARIAREN IZENDATZEA

Ordezkaritituludun eta ordezkobaten izendatzea Sindikatu Batzordean aulkia ukaiteko.

Ordezkaritituluduna Philippe Mongabure – Ordezkoa Virginie Sabaloue

Aho batez onartua.

7. GOZATEGIAREN ALOKATZE-KUDEAKETA KONTRATUAREN GEHIGARRIA

Osagarri larrialdiarengatik ezin izan zen ostatu-jatetxearen kontratu berria berriz hasi 2020ko apirilaren 1ean. Beraz, proposatu da gehigarri bat finkatzea lehenbiziko zerbitzu zergaren ordainketa 2020ko uztailaren 1ean baizik ez egiteko.

Aho batez onartua.

8. "BESTAK ETA OSPAKIZUNAK" POSTURAKO ESLEITU DIRUKETAREN MANDATU BAIMENA

Kontulariak galdeginik, printzipiozko deliberamendu bat hartu behar zen baimentzeko gastu mota horien bideratzea, doazkien gastuen ezaugarri nagusiak finkatuz.

Aho batez onartua.

9. HELTZARRIA BASERRI BIDEAREN LEKUZ ALDATZEA

2006an lehengo Herriko Etxeak erabaki batzuk hartu zituen, eta ondorioz Herriko Kontseiluak, inkesta publiko baten ondotik, erabaki zuen Heltzarria bidearen parte bat lekuz aldatzea, eta lehen herriarena zen lursaila MARTINON jaunari besterentzea.

Geometrak behin betiko planoak eman ditu eta azalera aldatu dira. Beraz, zehaztasun gehigarriak behar dira ezarri operazio horretan:

HERRIKO ETXEAK emanen lioke MARTINON jaunari Heltzarria bidearen zati bat, kadastrako A saileko 1422.a, 4/84 ca-ko azalera, 4,50 € /m²a, hots, 2 191,50 €.

MARTINON jaunak bidearen jabetasun berria emanen luke, kadastrako F saileko 660.a, 3/96 ca-ko azalera, 4,50 € / m²a, hots, 1 782 €.

Erabaki horien aplikazioak ez du ondoriorik, eta Moreau andereak eta Martinon jaunak dituzte berriz galdegin dossier horren bururatzeko. Akta gastuak MARTINON familiak ditu ordainduko.

Aho batez onartua.

Gainerako gaiak:

- Harrobiaren antolaketari buruzko xehetasuna - Bertrand Gaufryau, Armand David lizeoko zuzendari eta aihertar berriaren esku hartzea:

Armand David lizeoarekin den partaidetzaren aurkezpena, irakasle eta ikasleekin eginen dena. Gunean berriz natura ezartzea erabaki da, harrobia antolatuz gune bat baino gehiagoren plantan ezartzeko: fruitu baratzea eta baratze partekatuak, joko gunea, osagarri ibilbidea, gune hezea...

- Herriko argiak aldatuko dira 2020an, eta Sdepak finantza lezake; laster behar da modeloa hautatu.
 - Herriko kantinearen handitze obren aitzinamendua: iraileko eskola sartzeko behar luke prest izan, labur izanik ere.
 - Argibideak Herriko Etxeko helgarritasun obrei buruz eta zaharberritzeari buruz. Obralariak eta arkitektoak bi proiektu desberdin aurkeztu dizkigute. Bietarik bat beharko da hautatu iraileko, dosierra 2021 hastapenean ikertzeko gisan.
 - Zuntz optikoa irailean helduko da Aiherrara, eta lehenbiziko abonamenduak hartzen ahalko dira (informazio bilkura bat antolatuko da, beharbada uztailean?))
 - Uda honetako jarduerak: osagarri protokoloak beharko dira errespetatu gune publikoetan, eta aldaketa bat behar liteke, agian uztailearen 10eko.
- Gelaren, trinketaren eta gune publiko hetsien erabiltzeko protokolo horiei jarraiki behar zaie. Ekitaldien antolaketak behar dira deklaratu eta antolaketa zehatz bati behar die ihardetsi.

Bilkura bururatu da 22:30ean

Auzapeza

Arño GASTAMBIDE